

ERABAKIA, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GERENTEARENA, 2024rako TELELANAREN MODALITATEAN ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO ESKATZAILEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ARGITARATZEN DUEN ERABAKIAN ATZEMANDAKO AKATS MATERIALA ZUZENTZEN DUENA.

UPV/EHUko gerentearen 2023ko azaroaren 24an sinatutako Erabakiaren bidez, 2024an telelanean onartutako eta baztertutako eskatzaileen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

Argitaratu ondoren, akats bat antzeman da aplikazio informatikoan. Horren ondorioz, bi eskaera ez dira izapidetu, eta, beraz, ez dira argitaratutako zerrendan sartu.

Akatsa zuzendu eta bi eskaerak aztertu eta gero, Nerea Zarrabeitia Jaureguien (NAN:** 6* 69* 9*) eskaerak bi puntu lortu ditu eta, 2016ko otsailaren 29ko Erabakiaren bigarren ataleko 9. artikuluan ezarritako baremoa aplikatuz, onartu egin da. Oiane Bravo Lopezen (NAN: 78* 0** 2*) eskaera baztertu egin da, 0 puntu lortu baititu.

Hala ere, Administrazioaren akatsa denez, Nerea Zarrabeitia Jauregui onartutako eskatzaileen zerrendan sartzeak ez dakar lehendik argitaratutako onartutakoen zerrendan agertzen diren pertsonak lekuz aldatu behar direnik.


Ondorioz, Gerentzia honek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua kontuan hartuta, zeinak honela baitio: "Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.", eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakiak emandako eskumenen babesean, bere eskumenak eskuordetzeari eta bere gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteari buruzkoa, honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- UPV/EHUko gerentearen 2023ko azaroaren 24ko Erabakian egindako akatsa zuzentzea, zeinaren bidez 2024rako telelanean onartutako eta baztertutako eskatzaileen behin betiko zerrenda argitaratu baitzen, Nerea Zarrabeitia Jáuregui (NAN:** 6* 69* 9*) onartutakoen zerrendan sartuz, eta baztertutakoen zerrendan, berriz, Oiane Bravo Lopez (NAN: 78* 0** 2**).

Código Seguro de verificación tP2imWE+VrTPaJrEkoZUag==. Permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: <https://app.ehu.eus/verifirma/code/tP2imWE%2BVrTPaJrEkoZUag%3D%3D>

FIRMADO POR	Miren Lorea Bilbao Artech 30573996G	FECHA	29/11/2023
ID. FIRMA	afirma.redsara.es	tP2imWE+VrTPaJrEkoZUag==	PÁGINA 1/2



tP2imWE+VrTPaJrEkoZUag==



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

Bigarrena. – Erabaki hau UPV/EHUren webgunean eta EHU Taulan argitaratzea.

Leioan, sinadura elektronikoaren datan.

Lore Bilbao Artetxe
UPV/EHUko gerentea

Errekurtsoak. - Erabaki honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok gerenteari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke zuzenean dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, kasu bietan epeak jakinarazpenaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Código Seguro de verificación tP2imWE+VrTPaJrEkoZUag==. Permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: <https://app.ehu.eus/verifirma/code/tP2imWE%2BVrTPaJrEkoZUag%3D%3D>

FIRMADO POR	Miren Lorea Bilbao Artech 30573996G	FECHA	29/11/2023
ID. FIRMA	afirma.redsara.es	tP2imWE+VrTPaJrEkoZUag==	PÁGINA 2/2



tP2imWE+VrTPaJrEkoZUag==